

Aiherra

Herriko kontseiluaren berri

Herriko kontseilua joan den uztailaren 4an bildu zen, 13 kontseilarietatik 10ek parte hartu zuten. Hartu dituzten erabaki nagusienak hauek dira:

- Herriarteke Tokiko Hirigintza Planoa baieztatu zuten. Euskal Elkargoan hau bozkatu edo baieztatu ondoan (uztailaren 20an), inkesta publiko bat eginen da ondoko aste edo hila-beteetan herrian, eta herritarrek beren oharrak egiten ahalko dituzte.

- Toponimia taldeak azken urteetan lan eginik herriko bide guzien izendatzeko, Herriko Etxeak pankarta edo bide seinaleak manatuko ditu. Horrela bideak eta auzoguneak seinalatzen dituzten pankartak urte hondarra aitzin ezarriko dira.

- Elixaldeberria etxea eraikitzen ari dira. Sei apartamenduen (T4 bat, bi T3 eta hiru T2) alokatzeez interesatuak diren herritarrek galdea Herriko Etxean egin beharko dute.

- Orotariko galak: Hazparne aldeko Elgar Oinika dantza taldeak Aiherrako Denen Etxearen baliatzea galdatu du, ortzirale arratsetako dantza errepikentzat. Kontseilukoek baia eman diote.

- Uda huntan, astelehen arratsetan, herri barneko aparkalekuan, komertsant ibiltari batek eremaiteko janaria prestatuko eta salduko du, (19:00 - 21:30). Pizza, burger, etxeko gauzeekin egina, eta beste hainbat gauza on hautatzen ahalko omen da.

Benito Bereau-Lafitte eta Xabi Harguindeguy txapeldun

Euskal Herriko Pilota Batzordeak antolatu pilota txapelketaren finalak berriki iragan ziren. Joan den ibiakoitzean zortzi gazteetan ari diren Benito Bereau-Lafitte eta Xabi Harguindeguyk txapela doi doietarik ereman zuten 30 eta 28 nagusituz Lau Herri pilota batasuneko Xabi Daguerre eta Imanol Housset-en aurka, Arberatzeko pilota

plazan. Erran behar da lehen 20 puntuetan beti gibeletik zirela gure Abarratia batasuneko putikoak, baina ez dutela amore eman. Horrela Euskal Herriko txapeldun ditugu Benito eta Xabi. Biba zuek.

Bestalde, heldu den ibiakoitzean beste 2 parek final handia jokatu beharra dute, Donamartiriko plazan. Hauek ditugu umetxoetan ari diren Mattin Anchordoquy eta Mikel Harguindeguy (txapeldunaren anaia), eta Iztebe Oihenart eta Allande Martinon, hauek gazttxoen mailan izanki. Xantza on bat desiratzen diotegu.

HERRIA

12.07.2019



Txapeldunak arduradunetz inguraturik: ezkerretik eskuinera Beñat Durruty, Benito Bereau-Lafitte, Xabi Harguindeguy eta Cedric Noblia